

POLITIKAREN ALDE

Arroa (1991.11.15)

Azken denborotan atentatuen eragin ezaz ahots itxaronkorrak entzuten hasi baino ez garenean, beste pentsamolde bitxi eta arriskutsu bat ari da zabaltzen. Euskal Herrian hots, politika gehiegikerian erortzen ari garela, gehiegikeria hori ditugun arazo larriak gainditzeko oztopo bakarra edo, behintzat, handienetarikoa bailitzan.

Egia esatekotan, politizazio maila inoiz baino beherago dagoenez gero, enurarik gabe ondorioztatu genezake batzuk, jakinaren gainean eta maltzurkeriaz, hutsaren hurrena bilakatzeko asmoz dabilzala. Zeren eta korronte ideologiko horren iturriak, bere zabalkunde bideak eta, batez ere, bere hedamenaz nor ateratzen den irabazle zerbait ikertu ondoren, garbi geratu bait zaigu, nik uste, mamiz eta xedez pentsakera hori benetako demokrazia edo askatasunaren aurka datorrela.

Gutxienez Comte eta Saint-Simonen garaikoa dugun pentsakera zahar horren muina gizarte baten arazo guztiek soluziobide teknikoa dutela eta politizatzek berauen ulermen eta konponbideak aurkitzeari galarazi besterik ez diola egiten baieztatzean datza. Berorren arabera euskarak, langabeziak, ekonomiaren suspertzeak, indarkeriak, drogak eta abarrek konponbide tekniko hutsak dituzte; beraz, politika alde batera utzirik, tekniko dunak diren gizasemeen eskuetan eta ardurapean geratu beharko lukete. Teknika bihurtzen da lehen zientzia (master science), politika Aristotelek jarri zuen toki goren horretatik nardaz besapera botaz.

Premisa horretatik berehala ondoko hau eratortzen da: tekniko ahalguztidunak axiomatikoki ezgai den politikariaren lekua bereganatu behar duela, elkarrizketa eta arrazoiarenganako eraspentak gatazka, azpikeri eta trikimailuarena, halabeharrak asma ezintasunarena. Modazko gizabanakoa, beste garai batean gizurena, txamana, apaiza, filosofoa, santua edo gentleman-a izan diren antzera, gaur egun ingeniaria da: gazte guztien urrezko ametseko pertsonaia, titulu hori lortu ezin izan dugun heldu guztion lotsa ezkutua.

Gure herri txiki honetan, agian txiroegia goimailako ingeniari askoren gurariak asetzeko, erdi-mailako ingeniariak (peritoek) betetzen dute garrantzizko funtzio hori, batik bat eskola politekniko horietatik ateratakoek, non heziketa tekniko landa, herriaren zerbitzurako gogo bizia eta arau maitasun sendo bat ere ikasi baitute. Horiek dira gaur eta hemen adurrak ikututakoak. Ongiaren ideia aurrez-aurre ikustatu ondoren -Platok eskatzen zuen bezala- giza ontziaren buru izateko prest eta gertu daudenak. Politika zertaz den ere inoiz entzun ez baldin badute, hainbat hobeto; noizbait horretaz ihardun baldin badira, lehen bait lehen ahaztu dezatela eskatzen zaie.

Beste herri batzutan hots, burujabetasuna aski bermaturik dutenetan, politikaren eremuan teknikoek eskusartze honek mota guztietako ondorioak ekar ditzake: onak eta txarrak; gure

herrian, berriz, erabat kaltegarriak. Gure artean politika teknikagatik toleztgabe edo bona fide ordezkatu bahian dabilzanek baliabideen administrazioaren arazoa beraien xedatze eta kontrolatze arazoaz nahasten dute. Lehen arazoa teknikoak izan daiteke, bigarrena politikoa da inolako errurik gabe. Hau ahazteak teknikaren bidez problemak konpontzen alferrik saiatzea dakar berarekin, kontutan izan gabe teknikak, dena den, ezin duela inoiz ogiak eta anaiak mirariz ugaritzea lortu, bere zeregin bakarria askoz ere ahulagoa baita, hots, bere esku jarritako baliabideak politikoki kontrolatzen dituenaren probetxurako gestionatzea.

Baina politikaren ordezkari teknika jarri nahian jo eta ke ari direnak ez dira inozoak, aitzitik ondo baino hobeto baitakite zer lortu nahi duten. Lehen indarra eta azpikeria letu dugun tokian interes ezberdin arteko gatazka irakurtzen baldin badugu, asma ezintasuna irakurri beharrean sozial-batzuntasuna, ezgaitasun politikoaren ordezkari nork bere indarraren mugen kontzientzia, ez zaigu batere zaila egingo gure arteko ultra-teknologo guztien xede totalitarioaz ohartzea. Aristotelek esan zuenez apolitikoak abere edo jainko izan behar du; teknikoak ez du bere burua aberetzat jotzen, beraz jainkotzat hartzen du; baina bere burua jainkotzat hartzen duten gizasemeek despotak edo tiranoak izan behar. Horiei kasu egiteak betirako morrontza onartzea suposatzen du, zeren eta oztopo politikoak desagertu ondoren bakarrik, hau da, gure morrontza gogoz onartu eta barneratzen dugunean bakarrik, ahal izango baitute erakutsi beraien trebezia 'teknikoa', baina orduan, oraindik maltzurkeriaz aldarrikatzen dituzten helburuen zerbitzuan ez, bere baitan betidanik gurtzen duten Leviathan-en zerbitzuan baizik.

Teknikak edota atentatuek politika alboratu eta ordezkatzeko gure herriaren etorkizuna kinka larrienean jartzea izango litzateke. Gure arteko norbaitek esan du estrategia politikoari uko egiten dion herriak historiatik ateratzeko biderik errazena eta zi hurrena hartzen duela. Hortaz, bada, gure zeregina, gauza garaino bederen, maila politiko edo estrategiko hori erdiesteko ahaleginak xedarririk dute, Bide hestu eta latz batetatik abiatu garela sobera dakigu, batez ere gure indarrak eta gure indarrak eta gure ausardia zein eskasak diren kontutan izanik; beraz bide zabalagoa, errazagoa edo laburragoa ezagutzen duenaren aholkuak pozik baino pozago entzuteko prest izango gaituzue beti. Baina ez genuke nahi inola ere gure atzetik datozen gazteek, zeinen artean gure semeak ere izango baitira, gure izena lotsaz eta arbuioz aipa dezaten barka ezinezko traizio bat leporatzen digutelarik.